




Save the Children

HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

6-8 urte bitarteko haurrentzat egokitutako bertsioa




DEFENSOR
DEL PUEBLO

Kaixo! Zure eskubideei buruzko liburuxka bat aurkeztu nahi dizugu. Badakizu **ESKUBIDEAK** zer diren?

Inork kendu ezin dizkizun
gauza garrantzitsua dira
eskubideak, eta pertsona
guztioi dagozkigu.
Zuri ere bai!

Eskubideez gain, betebeharrak
ere baditugu, hau da, denok
ondo bizi ahal izateko egin behar
ditugun zereginak.



Eskubide horiek ezagutzera eman nahi dizkizugu: hitz egizu haiei buruz eskolan, etxean eta nahi duzun toki guztietan, bai zuk bai jende guztiak, heldu nahiz haur, eskubide horiek errespetatu eta aplikatu ditzaazue.

Kaixo!



Kaixo!





Kaixo!




Bada nazioarteko lege bat 0-18 urte bitarteko haur guztiak babesten gaituena: Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena. Haur guztiok eskubide berberak ditugu. Horrek esan nahi du gobernuek, familieek eta gure inguruko jende guztiak gu babestu eta ondo tratatu behar gaituztela.

Marraztu hemen zure lagunak




**Haur guztiak gara garrantzitsuak!
Horregatik, gobernuek eta jende guztiak
ahal duten guztia egin behar dute
gu ondo egoteko
eta guk bizimodu ona izateko.**


**Marraztu
zeure
burua!**



Nik ere bai!




Eta nik!



Haur guztiok dugu geure izena,
eta hori ere eskubide bat da!

**Mikel izena
dut nik**





**Nik Ane,
eta zuk?**



Idatzi hemen zure izena:

Eskubidea dugu ondo bizitzeko, beldurrik gabe,
maite ditugun eta maite gaituzten pertsonekin,
eta maite ditugunak errespetatu
eta zaindu beharra daukagu.




**Eskubidea dugu pertsona guztien aldetik
ondo tratatuak izateko eta inork guri minik
ez emateko. Guk ere ondo tratatu behar
ditugu haur eta pertsona guztiak,
haiek ere horretarako eskubidea dute et.**



**Eskubidea dugu gaixo gaudenean laguntza
jasotzeko, osasun-etxera joateko,
eta sendatuak izateko.**

**Geure gorputza zaindu eta janari
osasungarriak jan beharra daukag.**



**Eskubidea dugu eskolara joateko
eta gauza asko ikasteko**




**Gainera, irakasle
eta hezitzaileek
agindutako lanak
egin beharra
daukagu.**

**Eskubidea dugu itsaso eta ibai garbieten
bainatzeko, aire garbia arnasteko
eta ur garbia edateko.**



**Eskubidea dugu pentsatzen duguna esateko
eta besteek, haur eta helduek, entzun egin
behar gaituzte. Beste pertsona batek
gustatzen ez zaigun zerbait esaten badu,
errespetatu egin behar dugu,
haren iritzia delako.**



Zer hitz osa ditzakezu letra hauekin?

**Eskubidea dugu atseden hartzeko,
jolasteko, beste haurrekin egoteko,
barre egiteko eta mendi-ingurunez
eta hiriaz gozatzeko.**




**Eskubidea dugu gure hizkuntzan hitz
egiteko, gure festa eta ohitura
tradizionalek tan parte hartzeko, eta gure
gurasoengandik horiek guztiak jasotzeko.
Horrekin batera, gureez bestelako
hizkuntza eta ohiturak errespetatu
beharra daukagu.**


Zer hizkuntzatan ari dira, zure ustez?



ТРИБЕТ!
Kak zera!



早上好!
阙数字!



**Gauza bat ondo egiten ez dugunean guraso,
irakasle eta hezitzaileek esan egin behar
digute eta gauza hori hobeto egiten irakatsi
behar digute. Gure eskubidea da.**

**Arreta
handiagoa
jarri!**

**Joango gara parkera
jolastera eskola amaitzean?**



HAURREN ESKUBIDEEI BURUZKO HITZARMENA

6-8 urte bitarteko haurrentzat egokitutako bertsioa



Save the Children

Material honen lehen argitalpena (2009ko abuztua) honako erakunde hauek finantzatu zuten: Bartzelonako Udalak, Kataluniako Generalitateak, Terrassako Udalak eta Lleidako Udalak.

Erakundeok beren onspena eman dute lan hau Espainiako Estatuko gainerako hizkuntza ofizialetara itzulia izan dadin, eta Espainiako Arartekoak erabili eta zabaldu dezan

Zure eskubideei buruz norbaitekin hitz egin edo informazio gehiago jaso nahi baduzu edo iruditzen bazaizu zure eskubideren bat ez dutela errespetatu, hona jo dezakezu:

Defensor del Pueblo

C/ Zurbano, 42

28010 Madrid

900 10 10 25 (Doako telefona)

91 432 79 00 (24 orduko arretarako telefona)

registro@defensordelpueblo.es

www.defensordelpueblo.es

© Mercè Allàs
M 36964-2014

